

4

ADMINISTRAZIOKO EUSKARA PLANEN GAINENKO BEGIRADA DESBERDIN BATERAKO SAIOA, OSAKIDETZAKO PLANAREN EBALUAZIOK ABIATUTA

Roberto Manjon Lozoya

Hizkuntza-normalizazioko teknikaria. OSAKIDETZA

Helbide elektronikoa: ROBERTO.MANJONLOZOYA@osakidetza.net

Osakidetzako Euskara Zerbitzuak berriki egin du erakundeko Euskara Planaren ebaluazioa. Ebaluazio-txostenak azaleratu dituen ahulezia handiak eta kezkatzeko moduko arazoak Administrazioako hainbat euskara-planetan ere nabariak dira, hein desberdinetan bada ere. Horregatik, aukera ona da hizkuntza biziberritzeko prozesuari modu desberdin batez begiratzeko, lantegi horretan dihardugun teknikari askok ohiko estrategiak berritzeko premia sentitzen dugunez. Hortaz, saio honen muinean Osakidetzako eskarmentua badago ere, balio orokorra emateko asmoz lotu naitzaio lanari, gutxienez, baldintza soziolinguistiko eta instituzional eskasetan edo Erkidego mailako erakundeetan burutzen diren euskara-planak kon-tuan hartuta, alegia, gehien-gehienak.

1. HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA ZER DEN

Hizkuntza-normalizazioaren gainean oso kontzeptu murrizta darabilgu. Hizkuntzaren normalizazioa, hiztun-herri batena denez, eremu zabalago eta konplexuago baten zati edo alde baizik ez da. Aldaketa sakona eskatzen du ohituretan, bizimoduan, harremanetan, balioetan. Aldaketa soziala,

eta aldi berean, kulturala, politikoa eta ekonomikoa. Aldaketa konplexua beraz. Horregatik, *hizkuntza-iraultza* da normalizazioa, beste iraultza baten alde linguistikoa. Hiztun-herria gutxiagotzen duten baldintzak sakonki aldatu gabe ez dago hizkuntza-desplazamendua gelditzeko modurik. Hizkuntza-normalizazioari, ez ote diogu gehiegi eskatzen eta gutxiegi eskaintzen?

Izan ere, hiztun-herrien arteko harremanak, hizkuntzen artekoak bezala, menderatze-harremanak dira. Horrek zuzenean garamatza beti ekiditen dugun oinarriko gogoeta batera: Zer harreman dago normalizazioaren eta gizartearen botere-egituraren artean? Zer dago normalizazioaren hezurduraren? Galdera egokia zabalagoa da: esangura estatistikotik landa, zer da *normala*? Gizarteko botere-sistema hegemonikoek halakotzat daukatena, kontrolatzen dutena, eta *anormala*, arau horretatik kanpo dagoena, ondo egokitzen ez zaiona. Normaltasuna botereak sortzen du, boterea da, berez, normalizatzailea.

Alboratu behar genuke boterearen gaineko ikuspegi sinplista. Boterea nonahi dago, anizkuna, konplexua, eraikitzailea eta sortzailea da, beti menderatzailea, askoz gutxiagotan zapaltzailea eta bortitza. Botere-sareak gizartea antolatzen du. Gizarte-sare guztietan dago, dentsitate eta eduki (ekonomikoa, politikoa, kulturala, erlijiosoa, linguistikoa...) desberdinak dituela. Euskal hiztun-herria, herri gutxiagotu guztien antzera, botereaz desjabetutako herri bat da. Gizartearen erretikulu ahulenen eta meheen gainean dago egituratuta. Hori da haren arazoan bihotza. Herri *anormala* da.

Boterearen tresnak askotarikoak dira. Une honetan bat interesatzen zaigu oroz gain: *logosa*, hitza, edo nahi izanez gero, hitz-pentsamendua. Aspalditik dator hizkuntza-boterearen gaineko gogoeta (sofistak, Platon, Bacon), baina aro modernoan bereziki azpimarratu dute botere linguistikoak, ezagutzari hertsiki loturik dagoenez, natura eta beste gizakiak menderatzea duela eginkizunik behinena (Horkheimer-ek, Adornok, Michel Foucault-ek). Are gehiago, botere linguistikoa berez arrazionalizatzailea denez, sistema koherenteak maite ditu, eta munduko desberdintasun oro gorrotatu. Kapitalismoak, indar produktiboak eta merkantzia-fluxuak arrazionalizatzeko ahalegin aurreratu bat denez, euskal hiztun-herria desagertzeko arriskuaren aurrean jarri du.

Egia bera botereak sortua da, boterearen diskurtsoaz eratua, bere eza-gutzaren emaitza. Botereak diskurtsoak sortzen baititu (ezagutza) eta, alderantziz, beste diskurtsoen ekoizpena oztopatu edo galarazten du (kontrola), adibidez, euskaldunen hitza. Lengoiak, mundua sortzen du, berbalizatuz (Wittgeinstein). Hitza ez duenari mundua murrizten zaio, txikiagotu, mundu soziala behinik behin. Horrela, euskaldunak, gero eta ahalmen txikiagoa duen nazioa mundua, sortzeko, eratzeko, antolatzeko, besteei eragiteko, baldintzatzeko, haietaz elikatzeko; gero eta diskurtso murriztagoa duen hiztun-herria, gero eta mutuagoa; gero eta espazio fisiko — lurralde — eta demografikoa txikiagoa, estatistika ofizialek esanak esan.

***Hiztun-herria
gutxiagotzen duten
baldintzak sakonki
aldatu gabe ez dago
hizkuntza-
desplazamendua
gelditzeko modurik.***

***Euskal hiztun-herria,
herri gutxiagotu guztien
antzera, botereaz
desjabetutako herri bat
da.***

***Euskara-planak,
komunzki, erdal munduko
elite batzuen premiak
asetzera daude zuzenduta,
eta agian, zeharka, baita
erdaldun xeheak ere.***

Horiek horrela, legeek, dekretuek, eskubideen aitopeneke ezer gutxi konponduko digute, ezdeus baitira boterik gabe. Benetako indarrak beste lehiatzaileek dute, erdal hiztun-herriak eta gainerako herri handiek. Hizkuntzaren normalizazioak hiztun-herriaren normalizazioa ezinbestekoa du, funtsezko izari guztietan: sozio-politikoan, sozio-ekonomikoan eta kulturean. Euskaldunok boterea izari horiek berreskuratu ezik, ez dugu lortuko bat etortzea boterezko dentsitate nahikoa duten sare-erretikuluekin. Beraz, normalizazioa, zentzu zabalean, alde anitzekoa eta konplexua izanik, botere-banaketa eta antolamenduari egindako erronka bat da, edo bestela folklorea, itxura, propaganda. Botere erdalduna nonahi zalantza-tan jarri gabe, baita euskal gizartearen barruan ere, ezinezkoa izango da aurrrera egitea.

2. EUSKARA-PLANEN AMARAUMA

Administrazioko euskara-plan desbideratuak

Hizkuntza gutxiagotua normalizatzeko hizkuntza-politika, benetakoa eta eragingarria bada, hiztun-herria normalizatzeko gainerako politiken ondoan pentsatu eta sustatu behar da. Baina politika horiek, botere-banaketa edo eskualdatzea suposatzen dutenez, ez dira lehiakideengandik etorriko. Bestalde, euskara-planak, hizkuntza-politiken tresna izanik, boterearen dimensio linguistikoari lotzen zaizkio, eta arlo horretan ere, hiztun-herriak, normalizatuko bada, boterea berreskuratu behar du.

Arazoaren gordinetik ihes egin nahian, planok diseinatzerakoan, ezinbestean tresnerian eta idealismoan murgiltzera jotzen dugu sarritan. Hona hemen ihesaldi-moten zerrenda bat: ihesaldi idealista (hezkuntza da giltzarria, balioak aldatzea...), desarrollista (produktu erakargarriak, teknologia berrien xarma...) teknikoa (EFQM, Antolakuntza-ingeniaritza, berringeniaritza...) teorikoa (Fishman, hizkuntza-gutxiengoen bizindarra, ekolinguismoa...).

Osagai horiek beharrezkoak dira, noski, baina modu gaiztoan baliatzen ditugu diagnostiko murrizak, lehenetsun desbideratuak eta perspektiba faltsuak egiteko aitzakia direnean, are txarragoa plangintzaren benetako xedeak ezkutatzeko erabiltzen badira. Nekez aurkituko dugu euskara-plan baten inguru konplexutik abiatzen den diagnostikorik edo eremu horretan sartzen den ebaluaziorik. Aitzitik, maiz ikusiko dugu euskara biziberritzeko plana onartu duen udalbatzak aurreko egunean erabileran inpaktu izugarria izango duen arau-subsidiarioak edo urbanizazioa erabaki dituela. Horregatik, zilegi da galdetzea, euskara gaia denez, agintari askoren benetako asmoa zein den.

Agintari eta plan-arduradun jakin batzuen asmo onak ez ditut eztabai-datu nahi, errealitatea ez baitu subjektu jakin batek sortzen. Planak nola eratzen eta kudeatzen diren ikusita, eta emaitzak gogoan, nire irudiko, euskara-plan gehienak euskaldunentzat baino gehiago, erdaldunek eta erdal-

dunentzat eginak dira, erdal hiztun-herri hegemonikoaren arabera, haren hizkuntza-erabilera legitimoa kolokan jarri gabe eta haren premiei egokitu-tuta. Hori ez da eragozpena baieztatzeko euskaldunei begira ere egiten direnik, baina ez euskaldunen beharrianak asetzearren. Botereak bere logikan ez du atsegin lehiatzaileei indarra oparitzea. Euskara-planak, komunzki, erdal munduko elite batzuen premiak asetzera daude zuzenduta, eta agian, zeharka, baita erdaldun xeheenak ere. Hala eta guztiz ere, gauzak ez dira erabat zuri edo beltz izaten: euskaldunek nolabaiteko etekina atera dezakete hortik.

3. OSAKIDETZAN, ADIBIDEZ

Osakidetzaren euskara-planak adibide ona eskaintzen digu erakundeko botere-guneak saihestuta euskararen erabilera normalizatzeko ahalegin alferrekoari buruz. Izan ere, plana kudeatzeko era modu kontziente batez aldendua izan da agintarizetatik, eta bereziki estamentu medikotik eta haren lerro hierarkikotik, ondoren baita erizaintzaren lerrotik ere, nahiz eta euskararen erabilera lerro hierarkiko horietan sustatu eta bermatu behar diren. Horrela, plana, fikzioaren erresuman, ostrazismora kondenuatu dute.

Arazoa, funtsean, larriagoa da, pentsa daitezkeen zuzendaritzarik onenek ere ezin baitute gizartea ordeztu. Euskaldunak nolabaiteko errealitatea ez badira, nolabaiteko boterea, euskarak ezin du benetan aurrera egin, garaitza iragankor batzuk gorabehera, normalizazio-neurriak abstrakzio hutsean geratzen direnez. Horiek horrela, itxuraz harago doan euskara-planaren estrategia nagusiak euskaldunak bildu eta boterez hornitzea izan behar du, alegia, eragiten duen errealitate bihurtzea, eurak izan daitezen normalizazio-prozesuaren ardatza. Euskararen erabilera haziko bada, euskaldunen guneak izan behar du oinarri, bertatik zabalduz joan dadin. Teknika desberdinak balia daitezke euskaldunak biltzeko, hala nola komunikazio-zirkuluak, akuilu-taldeak, hobekuntza-taldeak...

Gauzak horrela, komunzki, ekimen sozialetik abiatu beharko da benetakoa normalizazioa, euskaldunen bateratzetik hasita. Helburua ez da gatazka bila ibiltzea, ez zuzendaritza, ez langile erdaldun ez eta beste eragile batzuekin talkan, baina ezta besterik gabe ekiditea ere. Normalizazioa, euskaldunek autokudeatu beharrekoa da, eta horrela, euskara-planek ere, arrakastatsuak izango badira, hein handi batean, euskaldunek kudeatuak izatea eskatzen dute.

Euskaldunak normalizazioaren ardatza ez direnean, neurriek ez dute idatzizko testugintzaren alorra gainditzen, eta itzulpenarekiko erabateko menpetasunez, ekoizpen sasi elebidun batera heltzen da. Itzulpena normalizazioaren aurkari bihurtuta, euskal hiztun-herriak ez du aurrera egiten. Esan gabe doa, euskaldunen gunea zenbat eta indartsuago, orduan eta gehiago egiten duela egoerak hobera.

Osakidetzaren euskara-planak adibide ona eskaintzen digu erakundeko botere-guneak saihestuta euskararen erabilera normalizatzeko ahalegin alferrekoari buruz.

***Euskaldun-gai berriak
ikasketa-prozesuan
bertan izan behar du
tokia euskaldunen sarean,
edo gutxienez gune
euskaldun baten
inguruan.***

Euskara-planak oinarritik huts egiten duenez, hizkuntza-eskakizunen sistema sostengurik gabe geratzen da, eta onura gutxien ordainean albo-ondorio larriak gertatzen dira euskaldunen interesen kalterako. Bide batez, euskaren aurka lehiatzen dutenen aparatu intelektualak benetako arrazoiak aurkitzen ditu diskurtso negatiboa indartzeko.

Bestalde, Administrazioaren jokabide arrazionalistaren ondorioz ezarri den sistema bakarragatik, baliteke hizkuntza-eskakizunen edukia ere egokia ez izatea, lan-jardueraren berezitasunei ez baitzaie behar bezain ondo egokitzen. Sistemok erakundeen premietara makurtu behar lirateke eta ez alderantziz. Iruditzen zait, eskuarki, euskararen normalizazioa zinez bilatzen duten planek aniztasuna eta malgutasuna gehiago beharko dituztela ezen ez goitiko antolakuntza orokor koherenteak.

Hizkuntza-eskakizunetan bezala, Osakidetza euskara-planak prestakuntza ere errotik egiten du huts. Langileen ikasketa-prozesua lan-prozesutik guztiz kanpo burutzen denez, langile euskaldunduak trebakuntza behar du aldeztatzeko, aldeztatzeko, aldeztatzeko, aldeztatzeko ego-
kitua bereganatzeko. Afera hori bakarrik balitz, gaitz erdi, zeren, gainera, lantegitik kanpo ez ezik, euskal kultura eta herri-erreferentzia orotatik landa ere egiten baitu ikasketa hori, abstrakzio huts batean, kultur eta erabilera-testuinguru barik, baina erdal munduaz inguratuta. Eten bat dago, gaitz zaila, euskaltegiko fikziozko euskal munduaren eta hiztun-herriaren artean, edo ez dago hiztun-herriaren ere. Horrela, euskaldunak ez da sortzen, euskal gizarte eta, beraz, kulturarekiko etena da eta.

Prestakuntza erabilera errealetik eta euskal hiztun-herriatik abiatu behar da, euskaldun berria euskal gizarteko —eta lantegiko— kide bihurtuko bada. Beraz, euskaldun-gai berriak ikasketa-prozesuan bertan izan behar du tokia euskaldunen sarean, edo gutxienez gune euskaldun baten inguruan. Hori horrela ez bada, agiridunak bakarrik izango ditugu, euskaraz egiteari uko egiten diotenak, baita herritar euskaldunak telefonoz edo zuzenki Administrazioa bertaratzen direnean ere. Garaitzak, izatekotan, pirrikoak izango dira, esfortzu handiz lortutakoa laster aienatuko baita, presioa jaitsi bezain fite. Gainera, trebakuntza ikasketa-prozesuan bertan txeratu behar da. Zentroko komunikazio-zirkulua izan daiteke trebakuntzarako eta harremanetarako eremua.

4. AZKEN HITZA

Euskaltzaleek argi eduki behar lukete, lankidetzak garrantzia izanagatik ere, euskaldunek eurek, lehiatuz, jorratu beharko dutela bere normalizazioaren bidea. Globalizazioaren fase oligopolikoan, euskal hiztun-herriari aukera bakarra geratzen zaio: uholde berdintzaileari buru egin eta herrien biziraupena ziurtatzen duen beste zibilizazio baterantz hurbiltzen joatea da.

Ondoko ideiak operatiboak izan daitezke euskal hiztun-herriak botere linguistikoa berreskuratzeko bidean:

- Kontzientzia politiko autonomoa garatu beharko du, abertzaletasun orokorrari jareginda: euskal intelektuaren eginkizuna hori bideratzea. Orobat, gizartearen balore hegemoniak nagusiak gaintitu edo birformaldu beharko ditu.
- Bidelagun estrategikoki egokiak bilatu beharko ditu (ekologismoa, deshazkundera...) baina pentsatu gabe interes eta balio guztiak komunak direnik. Berezko aliatuak ere egongo dira (sindikatuak, elkar-tekak...). Dena den, aliatuei normalizazioaren izaera zein den ulertarazi behar zaie: hezkuntza-lan handia dago egiteko.
- Nonahi eta zeinahi euskara-planetan euskaldunek ardatz izan behar dute, programa guztien gunea. Planen baldintzak onak direnean, kudeaketa partekatura jo behar da; bestelakoetan, auto-kudeaketara, planaren kontra bada ere.
- Normalizazioaren dinamika gizarte-kulturazko testuinguruan kokatu behar da, abstrakzioan gal ez dadin. Euskaldunekiko etenik ez.

Ondorio orokor gisa, esango dut, nire iritziz, euskara-planen gaineko sinestea alboratu behar genukeela, eta euskara-planak ardatz ez dituen pentsamendu-lerro berri batera hasiera eman. Orain arteko xalotasuna gaintituta, euskal hiztun-herriak hainbat arlotan bere burua kudeatzera jo behar luke, nahiz maila sozio-politikoan, euskal nazio bilakatzeko, maila soziokulturean, hiztun-herri normala izateko, maila sozio-ekonomikoan, herri bezala euskarriak eskuratzeko. Horrela, gomutan hartu behar genuke, funtsean, boterearen arazoa dugula aurrean, eta halatan, ez dela nahikoa agintariak alde edukitzea, baina, orobat, kontra egotea ere ez dela eragozpena, boterea izari anitzekoa, ubikua, eraikitzailea eta aldi berean menderatzailea delako, batzuetan, baita bortitza ere. ■

Euskara-planen gaineko sinestea alboratu behar genukeela, eta euskara-planak ardatz ez dituen pentsamendu-lerro berri batera hasiera eman.

Orain.